

2017



CÁMARA DEL LIBRO DE EUSKADI  
EUSKADIKO LIBURU-GANBARA

# [LIBURUA ETA IRAKURKETA SUSTATZEKO EUSKAL PLANA]

Liburuak eta irakurketak gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat sektore eta esparrutan bizi duen egoerari buruzko ikuspegi orokor estrategikoa



# AURKIBIDEA

<b>1.-LIBURUAREN SEKTOREA EUSKADIN: SARRERA OROKORRA</b>	<b>3</b>
<b>2.- IRAKURKETA</b>	<b>8</b>
2.1-IRAKURKETARI <i>BURUZKO DATUAK</i>	8
<b>3.-EDIZIOA</b>	<b>11</b>
3.1 EDIZIOARI BURUZKO DATUAK	12
3.2 EDIZIO DIGITALA	13
3.3 HEZKUNTZA-ALORRA	14
<b>4.-LIBURU-DENDAK</b>	<b>16</b>
<b>5.-LIBURUAREN SEKTOREA ETA IRAKURKETA INDARTZEKO EKIMENAK ETA NEURRIAK</b>	<b>18</b>
5.1 IRAKURKETA SUSTATZEN LAGUNTZEKO NEURRIAK	18
5.2 LIBURUAREN SEKTOREARI LAGUNTZEKO ZEHAR-NEURRIAK	26
5.2.1 <i>NEURRI FISKALAK</i>	26
5.3 EDIZIOA LAGUNTZEKO NEURRIAK	30
5.3.1 <i>NEURRI EKONOMIKOAK</i>	30
5.3.2 <i>JABETZA INTELEKTUALAREN ALORREKO NEURRIAK</i>	32
5.3.3 <i>NEURRIAK EKOIZPENEAN ETA MERKATURATZEAN</i>	34
5.4 LIBURU-DENDEI LAGUNTZEKO NEURRIAK	38

Euskadiko Liburu Ganbara  
Cámara del Libro de Euskadi  
Lehendakari Aguirre Etorbidea, 11  
48014 - Bilbao

## **1.- LIBURUAREN SEKTOREA EUSKADIN: SARRERA OROKORRA**

Liburuaren sektoreak eraldatze-prozesu sakon bat bizi du, eta, egoera horretan, ezinbestekoa da administrazio-publikoek eta balio-kateko bitartekariak hausnarketa egitea, liburuaren ekosistema berriari eutsiko dioten soluzio edo irtenbideak aztertze eta irtenbide horiek lantzen saiatzeko, liburua funtsezko tresna baita, herritar guztiek kulturara iristeko aukera berdinak izango baldin badituzte.

Kontsumoaren etengabeko beherakada iragarri digute, 2007. urteaz geroztik, liburuaren eta kulturaren sektorea aztertu duten hainbat lanetako adierazleek, eta adierazi digute, era berean, sektorea heldu eta ahul iritsi dela paradigma digital berriaren etorrerak eragin duen aldaketa-prozesura.

Paradigma berri baterako trantsizio horrek, teknologia-berrikuntza nabarmentzeaz gainera, aisialdiko eta kontsumoko ohitura berriak eta aldaketa sozialak eta demografikoak ekarri ditu, eta horrek guztiak hainbat ondorio izan ditu hezkuntzaren eta gizartearen eremuetan; horrenbestez, esparru berri batera egokitu beharrean gara. Esparru berri horrek, ziurgabetasunaz gain, orain artekoak ez besteko beharrizanak eta eskakizunak dakartzkigu.

### **Krisi ekonomikoaren eragina**

Egoera orokor konplexu horren gainean, eragin birrintzailea izan du 2007ko udan abiatu zen krisi ekonomiko eta finantzarioak; izan ere,

zigor handia ekarri dio estatuko ekonomiari eta, baita ere, nabarmenki, gure kultura-sektoreari.

Topikoak kontrakoa deritzon arren, baliabide publiko gutxien jasotzen dituen sektore ekonomikoen artean dago kultura-sektorea (BPGren % 3,7 osatzen du sektoreak, eta administrazio publiko guztien aurrekontu-gastu guztizkoaren % 0,55 jasotzen du laguntzetan<sup>1</sup>).

Azken krisi-urte hauetan, murrizten joan dira kulturara zuzendutako baliabide publikoen kopuruak, eta murrizketa hori bereziki izan da agerikoa eskola-liburuen alorrean, nahiz eta, urte hauetan, material pedagogiko berriak egin behar izan diren, curriculumak garatzeko irizpide eta eskakizun pedagogiko –egiaz berrietara– egokitzeko. Horrez gainera, murriztu egin dira biblioteken sistema publikoetan, eskoletan eta unibertsitateetan liburu-funtsak eskuratzeko aurrekontu-sailak.

Euskal Autonomia Erkidegoan, liburuaren sektoreko proiektuei zuzendutako finantzazioak behera egin du etengabe 2011. urteaz geroztik. Bertako testuliburuak, euskaraz idatziak, egiteko bideratu diren funtsek % 71,35eko murrizketa izan dute 2011. urteaz geroztik. Benetan ikaragarria.

Horri guztiari gaineratu behar zaio sektoreak baliabideak falta dituela edo urri zaizkiola iraultza teknologikoak behar dituen proiektu eta negozio-eredu berriei ekiteko, eta indarrean den arau-esparrua indargea dela sektorea pirateriatik babesteko. Horrek guztiak, babesgabezia dakarkio sektoreari.

---

<sup>1</sup> *Estatistika Kulturalen Urtekaria 2103*, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa.

Ezin denez eskala-ekonomiarik sortu eta inbertsioek itzulkin edo erretornurik ez dutenez, gurpil-zoro bat sortu da liburuaren sektorearen kaltetan; izan ere, sektorean enpresa txikiak dira gehiengo, eta nekez konpon daitekeen krisi bat sortu du egoera horrek. Aurreikuspenak, beraz, ez dira batere ziurrak. Beste arrazoi sendo bat da hori Liburua eta Irakurketa Sustatzeko Euskal Plan bat egiteko.

### Paradigma berriak

Teknologia berrien eta ingurune digitalaren agerpenak aldaketa handiak eragin dituzte betiko liburuak, paperean inprimatutakoak, ekoizteko, editatzeko, banatzeko eta merkaturatzeko prozesuetan, baina, era berean, nabarmen aldatu ditu irakurtzeko jarduera bera eta irakurketara gerturatzeko moduak.

Liburuek izan dituzten aldaketa handietara egokitzeko, edukiak aurkezteko eta egituratzeko modu berriak landu behar izan dira. Horrez gainera, nabarmendu behar da gero eta handiagoa dela euskarri digitaletan egiten diren edizioak, eta horrek bestelako merkatu bat sorrarazi duela, merkaturatzeko sistema eta kanal berriekin, baina baita arazo berriekin ere.

Edizio digitalak eta linean egindako banaketak eta salmentak gailentzen dira gaur egun edizio tekniko eta profesionaletan, hala nola, eta bereziki, medikuntzaren, zuzenbidearen edo ingeniartzaren alorretan eta lanbide-heziketaren esparruan. Horixe

bera gertatzen da erreferentziazko beste lan batzuekin ere, hala nola entziklopediekin eta hiztegiekin.

### Aldaketa sozial eta kulturala

Aldaketa sozial eta kultural handiko garaiak bizi ditu gizarteak. Aldaketa jarraitua eta etengabea da, teknologiaren berrikuntza gero eta handiagoak bultzatuta, hura baita garapenaren eta hazkundearen egiazko motor edo eragilea. Gizarteak prestakuntza baldin badu soilik izan daiteke jasangarria garapen hori. Eta hezkuntzaren bidez soilik lor daiteke prestakuntza-maila hori.

Hezkuntza-politiken arrakastaren edo porrotaren giltzarria beti izango da funtsezko faktore hau planeta honetako herrialde guztietan: irakurritakoaren ulermen-maila handiak iristea. Irakurmena ezinbesteko gaitasuna da konpetentziak, diziplina baitakoak nahiz zeharkakoak, eskuratzeko eta, horien bidez, “eraginkortasunez konpontzeko arazoak eguneroko bizitzako arlo eta egoera guztietan” (Heziberri). Irakurmenaren gaitasuna eskuratzearen erronka funtsezkoa da gure hezkuntza-sistemarentzat, eta hori adierazten dute, hain justu, gai-alor hori lantzen duten txosten guztiek, hala nola ELGE erakundeak bultzatutako PISA txostenak. Hala ere, ezinbestekoa da trebatzea irakurmen egokira iristeko. Eta etengabe ariketa xume bat egitea, irakurtzea, da trebakuntza horren muina edo ardatza. Irakurtzeko ariketa horrek ohitura izatera iritsi behar du. Izan ere, hori adierazi du, eta ez kasualitatez, Giza Zientzien erreformarako Txostenak, ezinbestean eskuratu beharreko ohitura dela irakurketa.



Agerikoa denez, aldaketa eta berrikuntza teknologikoaren instituzionalizazio horrek eraginak ditu irakurtzeko moduetan eta ohituretan, hezkuntza-sisteman eta, nola ez, liburuaren sektoreko eragile guztiengan: ekoizle grafikoengan, editoreengan, banatzaileengan, liburu-dendengan, liburutegiengan eta egileengan.

### Ohitura berriak eta kulturaren kontsumoa

Adierazi berri ditugun aldaketa horiek guztiek egoera berri bat ekarri dute, eta aldaketa horien eraginak nabariak dira produkzio-prozesuetan, editatzeko eta irakurtzeko euskarrietan, eta liburuen banaketan eta salmentan, baina, horrez gainera, aldaketak izan dira kultura-erabiltzailearen profilean, kultura kontsumitzeko modu eta ohitura berriak nabarmentzen baitira.

Industria kulturala garen aldetik, kontsumoa da gure jardueraren giltzarria, eta kontsumoak behera egiten baldin badu, sektore kulturalak eta administrazio publikoek ezinbestekoa dugu etorkizuneko planteamendu berriak egitea, irakurle berriak erakartzeko.

Berehalakotasuna da egungo egoeraren ezaugarri nagusia, baina, kontsumoari begiratuta, berriro berreskuratu behar da kulturaren balioa eta kultura-jarduerak, hau da, liburuen irakurketak, kontzertuek, filmek, museoek eta bestelako kultura-adierazpenek dakarten satisfazioa eta plazerra.

Horregatik guztiatik da premiazkoa eta presazkoa Liburua eta Irakurketa Sustatzeko Euskal Plan bat egitea, aurre egin behar

zaiolako egoera berriari, trantsizio-egoera antolatu behar delako eta adin txikienetarik landu behar direlako kultura eta haren adierazpen-modu askotarikoak balioesteko oinarriak.

## **2.-IRAKURKETA**

### a) Irakurketari buruzko datuak

Irakurketaren parametroetan, zortzi urtetik gorako herritar guztiak hartu behar dira kontuan hasiera batean; hala ere, alfabetatzeak eta eskolatzeak XX. mendearen azken hamarkadetan aurrerakada handia izan duten arren, CIS erakundeak berriki egin duen inkesta batek adierazi du, 2016ko irailaren Barometroan, herritarrek beraiek uste dutela gutxi irakurtzen dela (hori adierazi du galdetutakoen % 69,4k). Ez da hori, ordea, kezkarria, inkesta erantzun dutenen % 36k erantzun baitu ez duela inoiz ere irakurtzen eta % 7k adierazi du noizbait baino ez duela irakurtzen; beraz, herritarren % 42k ez du irakurtzeko ohiturarik, nahiz eta, lehen nabarmendu dugun moduan, garrantzi hezigarri eta sozial handiko jardura den. Egia da egoerak hobera egin duela azken hogeitun urteotan, baina premia eta presazko egin beharra da, gure ustez, irakurketaren kalitatea hobetzeko eta irakurtzen duten herritarren kopuruak handitzeko lanak indartzea. Europako herrialdeen irakurketa-ohiturak neurtzen dituen sailkapenean duen lekua hobetzea merezi du Euskadik, behingoz atzean uzteko azken lekuak. Baina ez zaio erronka horri harrokeriagatik ekin behar. Bide hori urratu behar da ezinezkoa izango delako, irakurketaren kalitatea eta kantitatea handitu gabe, erdietsi nahi dugun garapen soziala eta ekonomikoa iristea.

Konklusio hori bera iristen da PISA 2015 txostenaren emaitzak aztertuz gero. Euskadik 491 puntuko emaitza lortu du irakurmenean, eta kontuan izan behar da 498 puntu lortu zituela 2012ko txostenean, Espainiak 496 puntu eskuratu dituela eta ELGE eremuko batez bestekoa 493 puntukoa dela.

Eztabaida handia sortu da Euskal Autonomia Erkidegoak puntuazioan izan duen beherakadaren arrazoiak zehaztu nahi izan direnean. Adierazi da formatuz aldatu dela, lehen paperean egiten zelako eta orain ordenagailuz egin delako, laginak aldatu direla esan da eta beste arrazoi asko eman dira. Ziur asko, ez da arrazoi bakar bat izango emaitza horren atzean, eta arrazoi horien guztien ondorio izango da emaitza hori. Gure aldetik, eskatu nahi genuke aztertzea, indarrean izan den denboran, zer-nolako eragina, positiboa ala negatiboa, izan duen testuliburuaren kudeaketa solidarioa egiteko programak. Aztertu behar litzateke zer-nolako eragina izan duen ikasteko modua aldatu behar izateak: libururik ez “zikintzearren” testuak norberaren koadernoan kopiatu behar izateak, testuen ideia nagusiak liburuan bertan azpimarratuz ikasten ikasteko modua baztertu behar izateak, eskemen bidez ikasi behar izateak eta ildo horretako ikas-moduek.

## ERRENDIMENDUAREN MAILAK. 2015 PISA

### PISA txostena. 2015/2012 konparaketa, erkidegoetan

Zientziarako kompetentzia			Irakurmena			Matematikarako kompetentzia					
	2012	2015		2012	2015		2012	2015			
Gaztela eta Leon	519	=	519	Gaztela eta Leon	505	↑	522	Nafarroa	517	↑	518
Madril	517	↓	516	Madril	511	↑	520	Gaztela eta Leon	509	↓	506
Galizia	512	=	512	Nafarroa	509	↑	514	Errioxa	503	↓	505
Nafarroa	514	↓	512	Galizia	499	↑	509	Madril	504	↓	503
Aragoi	504	↑	508	Aragoi	493	↑	506	Aragoi	496	↑	500
Katalunia	492	↑	504	Kantabria	485	↑	501	Katalunia	493	↑	500
Asturias	517	↓	501	Katalunia	501	↓	500	Kantabria	491	↑	495
Errioxa	510	↓	498	Gaztela-Mantxa	-		499	Galizia	489	↑	494
Gaztela-Mantxa	-		497	Valentzia	-		499	Asturias	500	↓	492
Kantabria	501	↓	496	Asturias	504	↓	498	EAE	505	↓	492
Valentzia	-		494	Espainia	488	↑	496	ELGE	494	↓	492
Espainia	496	↓	493	ELGE	496	↓	493	Gaztela-Mantxa	-		486
ELGE	501	↓	493	Errioxa	490	↑	491	Espainia	484	↑	486
Balearrak	483	↑	485	EAE	498	↓	491	Valentzia	-		485
Murtzia	479	↑	484	Murtzia	462	↑	486	Balearrak	475	↑	476
EAE	506	↓	483	Balearrak	476	↑	485	Extremadura	461	↑	473
Kanariak	-		475	Kanariak	-		483	Murtzia	462	↑	470
Extremadura	483	↓	474	Andaluzia	477	↑	479	Andaluzia	472	↓	466
Andaluzia	486	↓	473	Extremadura	457	↑	475	Kanariak	-		452

### **3. -EDIZIOA**

Nekez izaten da kontuan liburuaren sektorearen garrantzi ekonomiko eta kultural handia, eta komeni da alderdi hori nabarmentzea. Edizioak, banaketak eta salmenta-puntuak osatzen dute sektorea, eta hor sartu behar genituzke industria grafikoa eta egilea ere; hori horrela, EAEko kultura-sektorearen % 46 fakturatu du. Guztira, 156,11 milioi euro fakturatu ziren 2013. urtean, eta liburuaren sektoreak, argitaletxeen eta liburu-denden datuei soilik begiratuta, 72,64 milioi euro fakturatu zituen.

Enplegu-datuei erreparatuta, zuzeneko 445 langile aritzen dira argitaletxeetan, baina, zeharkako enpleguak kontuan hartuta, 1.500 langileri ematen die lan sektoreak.

Estatutik kanporako esportazio-datuek adierazten dute 6,15 milioi euroko datua iritsi dela EAEn, eta zifra hori estatuko guztizko datuaren % 4,28 dela.

Liburuaren sektorea da kulturaren esparruan diru-laguntza publiko gutxien jasotzen dituen adarra, baina oso kontuan hartu behar da sektore estrategikoa dela haurren eta gazteen heziketa eta prestakuntza bideratzeko, herritarren kultura-maila handitzeko eta, gurean bereziki, euskara indartu eta zabaltzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoan editatu ziren 3.155 liburuetatik, euskaraz editatu ziren % 40.45, eta batez beste inprimatzen diren ale-kopuruak gainerako autonomia-erkidegoen batez besteko guztirakoaren parekoa da. Fakturazioa ia 60 milioi eurokoa da.

Fakturazio osoaren % 56 inguru hartzen du euskaraz argitaratutako liburuen fakturazioak, eta datuak dimentsio egokian baloratzeko, estatuko edizio-datuak ikusiko ditugu.

### 3.1 EDIZIOARI BURUZKO DATUAK

Eskuragarri dauden datuek, 2015. urtekoek, adierazten dute 81.181 titulu editatu direla estatuan, 225,28 milioi ale eta, batez beste, 2.810 ale titulu bakoitzeko. Katalogoan 586.000 titulu baino gehiago daude eskuragarri, eta horrek adierazten du bibliografia-eskaintza handia eta askotarikoa dela estatuan.

Hauek dira ehunekoak, hizkuntzaren arabera:

- Gaztelania, % 74,7.
- Katalana/valentziera, % 14,3.
- Euskara, % 2,2.
- Galiziera, % 2,2.
- Beste hizkuntza batzuk, % 6,5.

Paperaz besteko euskarrietan argitaratzen dute argitaletxeen % 43,9k, euskarri digitalean gehienek.

Negozio-zifrari begiratuta, hau izan zen argitaletxeen sektorearen fakturazioa 2015ean:

- Barne-merkataritzan, eskubideen salmenta barne hartuta, 2.216,84 milioi euro.
- Kanpo-merkataritzan, salgaiak eta zerbitzuak barne hartuta, 581,559 milioi euro.
- Filialen fakturazioa 2.600 milioi eurokoa izan zen.

Guztira, 5.398,399 milioi euro dira. Espainiar estatuko BPGaren milako 3,9 da, hain justu.

Enplegu-datuei begiratuta, sektore guztiak 110.000 pertsonari ematen die lan, enplegu zuzenak eta zeharkakoak zenbatuta.

Informazio-iturri horrek berak adierazten digu estatu osoko fakturazioaren % 2,7 fakturazten dela Euskal Autonomia Erkidegoan, 61,51 milioi euroko zenbatekoarekin.

### 3.2 EDIZIO DIGITALA

Teknologia berrien agerpenak aldaketa handiak eragin dizkie betiko liburuak, paperean inprimatutakoak, ekoizteko eta editatzeko prozesuei, baina baita horiek banatzeko eta merkaturatzeko prozesuei ere. Liburuek beraiek ere aldaketa handiak izan dituzte, eta edukiak aurkezteko eta egituratzeko modu berriak landu behar izan dira. Horrez gainera, nabarmendu behar da gero eta edizio gehiago egiten direla euskarri digitaletan, eta horrek bestelako merkatu bat sorrarazi duela, merkaturatzeko sistema eta kanal berriekin, baina baita arazo berriekin ere.

Beste gertakizun nabarmen bat da merkaturatze-plataforma handiak osatu direla eta horrek lehia handia ekarri duela. Egoera horrek kontzentrazioarako joera bat ekarri du, egun alor horretan lanean ari diren eragileen kaltetan. Eragileak, beraz, lankidetzaren ereduak bila ari dira, ekosistema indartzeko.

### 3.3 HEZKUNTZA-ALORRA

Zaila da eredu hori hezkuntzaren alorrean barneratzea, nahiz eta eskaintza, alor horretan, oso handia den, gure autonomia-erkidegotik kanpotik datorren eskaintzaren ondorioz, batik bat. Izan ere, alde handiak ikusten dira ikastetxeen arteko harremanetan, erabiltzen diren teknologia-plataforma asko ez dira bateragarriak beraien artean, irakasle askok ez du behar besteko prestakuntzarik baliabide berri horiek erabiltzeko eta, zenbaitetan, irizpide pedagogiko finkoen gabezia nabarmentzen da. Egia da gero eta gehiago erabiltzen dela ordenagailua ikasgeletan eta ikasgeletatik kanpo, baina adierazi ditugun arrazoi horien ondorioz, testuliburu digitalek ez dute erabateko ezarpenik; gainera, zenbaitetan, kontrol pedagogikorik gabeko eduki digitalak eta izaera profesionalik gabeko sistemak sustatzen dira, eta horrek ez dakarkie onik edukien kalitateari. Ikaslearen prestakuntza-bidean, laguntza handia ematen dute informazioaren eta komunikazioaren teknologiek, baina ez dira prestakuntza-bide horren oinarria. Beraz, teknologia eta pedagogia aurrez aurre jarriz gero, pedagogiaren alde egin behar da eskoletan.

Eskaintza digitala handia da gaur egun saiakeraren, pentsamenduaren eta literaturaren esparruetan, bibliografia-funtsak digitalizatzeko prozesuei eta lan berrien edizio digitalari esker; gainera, erraz eskura daitezke sarean. Izan ere, 183.893 libururen digitalizaziora iritsi zen 2015ean, eta, horietatik, 170.726 titulu merkaturatu ziren.

Hasiera hori harrigarria izan bazen ere, asko moteldu eta gelditu dira prozesu horiek azken bi urteetan, bai argitaletxeen edukien



lineako merkataritza-zirkulazioa, bai argialetxeen funtsen digitalizazio-prozesuak. Zenbaitetan, gainera, atzera egin da bidean. Egoera horren arrazoia da, gure ustez, oso handiak direla digitalizazioaren eta banaketa-plataformen kostuak, ez dagoela egoera berriari egokitutako esparru juridikorik eta eskaria oso txikia dela.

Ekoizpenak eta eskaintzak nabarmen egin dute gora, baina fakturazioa % 8 soilik handitu da. Kontuan izan behar da, gainera, pirateriak eta legez kontrako deskargak ez dutela etenik izan. Argialetxeen sektoreak, hala ere, ez dio utzi, bakarka edo lankidetzan arituta, liburu digitalak ekoizteko eta merkaturatzeko ekimenak abiatzeari, eta horrek aurrez aurre egiten du talka lehen adierazi dugun egoera gordinarekin. Gero eta liburu digital gehiago dago eta gero eta gutxiago fakturutzen da titulu bakoitzeko, mugigaitz ageri baita fakturazioa, eskaintza gero eta handiago horretan. Egoera horrek, noski, kolokan jartzen ditu argitalpen edo edizio digitalak eta argialetxeen jardura bera.

Ziurra da formatuak elkarrekin biziko direla. Liburu digitala ez da, garai batean uste zen moduan, paperezko liburuaren mehatxu. Hala ere, mehatxu izan daitezke telefono mugikorren erabilera eta ohituren aldaketak.

#### **4.-LIBURU-DENDAK**

Liburuak eta kultura zabaltzeko gune ezinbestekoak dira liburu-dendak, argitaletxeen industria independente eta plural batekin batera.

Maiz adierazi dugun moduan, kulturaren gune nabarmenak dira liburu-dendak eta, eragile kultural funtsezkoak diren aldetik, balio horri eusteko jardueren premian dira.

Kontuan izan behar da, horrekin batera, enpresa txikiak direla liburu-dendak, herritarrengandik gertukoak, eta egun bizi duten egoera zailak zuzenean eragiten diola liburuaren balio-kateari eta sare kulturalen eta sozialen eraikuntzari, sare horien osagai funtsezko izan behar luketen aldetik.

Topikoa da liburu-denda gehiegi daudela esatea, baina errakuntza agerikoa eta akats handia da, era berean. Ez dago liburu-denda gehiegirik eta ez dira inoiz ere gehiegi izango liburuak saltzeko guneak, edo, bederen, liburu mota jakinen salmenta-puntuak.

Oso gutxi dira funtseko liburu-denda onak eta zail dute etorkizuna aurrez adierazi ditugun aldaketa-faktore guztien ondorioz, baina bi faktore erabakigarri gailentzen dira haiek ixteko arrazoien artean, krisi ekonomiko latza, batetik, kulturaren kontsumoaren beherakada itzela ekarri duena, eta alor digitalaren agerpena, bestetik. Horrek guztiak aldatu egin du liburu-dendek zuten negozio-ereduaren egoera.

Ez dira Euskal Autonomia Erkidegoko liburu-dendak egoera zailean diren bakarrak; alde horretatik, CEGAL konfederazioak 2015ean egin duen liburu-denden mapari begiratuta, badago Euskadin dugun liburu-denden sarearen egoerari balioa emateko erreferentzia-elementurik.

### Liburu-denden bilakaera Espainian

	2013	2014
Liburu-denden kopurua (establezimenduen)	4.336	3.650

Autonomia-erkidegoa	Liburu-dendak 2015	Liburu-dendak 2014	Aldaketa (%)
EAE	167	173	-3,5

Probintzia	Liburu-dendak 2015	Liburu-dendak 2014	Aldaketa (%)
Araba	20	18	-% 10
Bizkaia	98	103	-4,9
Gipuzkoa	49	52	-5,8

Kultura-aniztasuna ziurtatzeko, funtsezkoa da liburu-denda onen kopuru egokia izango duen sare bat izatea, baina, eskaintzaren kontzentrazioaren ondorioz, arriskuan da sarea. Arrazoi ekonomikoek bultzatu dute, eta ez kulturek, kontzentrazio-prozesu hori.

Balio-kate guztiari eragiten dio liburu-denden sektoreak bizi duen egoera zail horrek, eta presazkoa deritzogu, ondorioz, liburu-dendei laguntzeko plan bat osatzea administrazio publikoekin lankidetzan. Laguntzarako tresnak eta neurriak sortu behar lituzke plan horrek, sendoago ekiteko etorkizunak dakarzkigun erronkei.

## **5.-LIBURUAREN SEKTOREA ETA IRAKURKETA INDARTZEKO EKIMENAK ETA NEURRIAK**

### **5.1- IRAKURKETA SUSTATZEN LAGUNTZEKO NEURRIAK**

Oinarrizko bi zutabe hauen gainean eraikitzen dira irakurtzeko ohiturak eta irakurmena: heziketa, batetik, eta irakurtzeko aukera eskuragarriak bestetik, liburutegi publiko eta eskola-liburutegi ongi hornitu eta landuetan bermatuak.

Indarrean den Hezkuntza Legeak, Lehen Hezkuntza zuzenduko duten pedagogia-printzipioak adieraztean, hitzez hitz arautzen du honakoa: “Irakurtzeko ohitura sustatzeko, egunero denbora-tarte bat eskainiko zaio” (19. 3. art.). Eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza antolatuko duten pedagogia-printzipioak arautzean, honako hau adierazten du: “Irakurtzeko ohitura sustatzeko, denbora-tarte bat hartuko da horretarako jakintzagai guztien irakaskuntza-praktikan” (26. 3. art.). Horrez gainera, eskola-liburutegiak arautzen ditu lege horren 113. artikulua, eta adierazten du ikastetxe guztiek izan behar dutela eskola-liburutegi bat, hezkuntza-administrazioek ikastetxe publikoen liburutegien hornidura osatu behar dutela pixkanaka, eta plan bat landu behar dutela helburu hori denbora labur batean betetzeko. Arautzen du, era berean, ikastetxeetako liburutegiek lagungarri izan behar dutela irakurketa sustatzeko eta lehen adierazi diren 19.3. eta 26.2. artikuluek arautzen dutena betetzeko.

Geure aburuan, indarrean diren hezkuntza-arau guztiak bete behar direla xedatzea izan behar du Liburua eta Irakurketa Sustatzeko Euskal Planaren lehen helburua: egunero irakurri behar dela arautu behar du, irakasgai guztiek irakurketari lekua egin behar diotela ezarri behar du eta eskola-liburutegiak egitea eta behar bezala hornitzea agindu behar du.

Jakin berri dira PISA 2016 txostenaren emaitzak, eta emaitza horiek adierazten dute irakurmenaren emaitza kaskarrek hezkuntza-prozesu osoan dutela eragina. Irakurmena landuz gero, hobetu egingo dira hezkuntzaren kalitatea, oinarrizko konpetentzien eskurapena eta ikasleen ikaskuntza eta prestakuntza. Horregatik irizten dugu indarberritu egin behar dela ikastetxeetan irakurketa-planak ezartzeko ildoak eta behar bezala egin behar dela ezarpen hori.

Liburuak modu ordenatuan eta gidaritzapean eskuratzea da irakurtzeko ohiturak eskuratzeko beste zutabea, eta zutabe hori eraikitzeko, ezinbestekoak dira ikastetxeetako liburutegiak. Liburu-hornidura ona eta zaintzaile egokiak dituzten liburutegiak tresna ezin hobeak dira hezkuntzaren kalitatea hobetzeko eta irakurle kritikoak sustatzeko, baita oinarrizko konpetentziak eskuratzeko eta lantzeko ere. Indarreko Hezkuntza Legeak arautzen du bere helburuak direla, besteak beste, ikasleek beren ikaskuntza erregulatzeko gaitasuna garatzea eta ohitura intelektualak, lan-teknikak eta jakintza zientifikoak, teknikoak, humanistikoak, historikoak eta artistikoak eskuratzea [2. f) eta h) art.]. Baina lortu al daitezke helburu horiek irakurtzeko ohiturak hartu gabe eta irakurtzeko liburuak eta

baliabideak, ikasteko prozesuan eskoletako liburutegietan izan behar dutenak, eskuratzeko aukerarik izan gabe?

- Liburutegi publikoen sistema

Liburutegien sistema publikoko liburutegi gehienak udal-  
eskumenekoak dira, eta onartu behar da nabarmen hobetu zela  
horien egoera *10/2007 Legea, Irakurketari, Liburuari eta Liburutegiei  
buruzkoa*, onartu ondorenean.

Baina 2007an abiatutako krisia luzatu egin da denboran eta, beste  
leku batzuetan baino geroago bada ere, iritsi zen gure autonomia-  
erkidegora, eta murriztu egin ditu urteko diru-ekarpenak; beraz,  
behera egin dute liburutegietarako, eta, batik bat, udal-  
liburutegietarako, aurrekontu-sailak.

Gure ustez, lehenbailehen ezarri behar dira liburutegi publikoetarako  
ildo estrategiko batzuk, itxurazko efizientzia-mailetara irits daitezten.  
Helburu hori lortzeko, honako ekintza hauek egitea proposatzen  
dugu:

- a. Liburutegi publikoen eta irakurketa publikoko mapak egitea  
Euskal Autonomia Erkidego osoan, lurralde historikoetan  
eta, gutxienez, hiri handietan, zerbitzuaren plangintza  
estrategikoa egiteko tresna izan dadin.
- b. Udaletako eta/edo eskualdeetako liburutegi-sareen euskarri  
diren zerbitzu zentralak indartzea.

- c. Hitzarmenak eta lankidetzarako plataformak sortzea tokiko sare bakar batean sartzeko titulartasun administratibo berekoak ez izan arren, udalerrri berari zerbitzu ematen dioten liburutegi publikoak.
- d. Irakurle-txartel bakarra ezartzea sarbide publikoko liburutegi-sare guztietarako.
- e. Zerbitzu publiko duina izatea liburutegien instalazioen gaineko politikaren emaitza, eta, horretarako, instalazioak beharizan berrietara egokitzea eta, premia baldin badute, berritzea eta zabaltzea.
- f. Eta, azkenik, liburutegi publikoen liburu-eskurapenak, oro har eta EAE guztian, liburutegi-sarearen bidez egiteko aukera eta komenigarritasuna aztertzea; izan ere, hori egiten da beste autonomia-erkidego batzuetan eta hori da, hain justu, liburuaren merkataritza-jardueraren orekari eusteko eta liburu-denden sare efizientea lortzeko neurrietako bat.

Helburu horiek lortzeko, ezinbestekoa da, era berean, liburutegi publikoen sarea diseinatzeko lanak aurreratzea, liburutegi publikoen sarearen funtzionamendua, antolamendua eta egitura hobetzeko. Honako jarduera hauek proposatzen ditugu, iradokizun moduan:

- g. Herritarrei egiten zaien zerbitzu-eskaintza handitu behar dute liburutegi publikoek, euskarri guztietara zabaldu behar dituzte mailegatzeko eta kontsultatzeko aukerak eta

Internetarako sarbidea, eta, horretarako, IKT ekipamendu egokiak izan behar dituzte.

- h. Udalerrri-mailako koordinazio-sistemak sortzea liburutegi guztien artean, eta elkarrekin adostuta erabakitzea bildumak hornitzeko eta horien mantentze-lanak egiteko politikak eta horietako bakoitzean eskuragarri dauden funtsen gaineko informazioa.
- i. Liburutegien egiteko hezitzaileak indartzea, eta xede hori lortzeko, prestakuntzako eta tutoretzako zerbitzuen eskaintza handia prestatzea eta irakurketa sustatzeko planak, udal-mailan koordinatutakoak, izatea.
- j. Langileen gutxieneko plantilla ziurtatzea, irizpide indarrekoen arabera, eta haien etengabeko prestakuntza bideratzea.
- k. Liburutegi publikoek EAEko bi hizkuntza ofizialetako liburuak izan behar dituzte beren funtsetan, eta euskarazko liburuen hornidura handia eta askotarikoa izan behar dute.

Aurrekontu-hornidura egokiak, egungoen bikoitzak, ezarri behar dira helburu horietako batzuen neurrizko lorpena iristeko.



- Unibertsitateetako liburutegiak

Gehiegi luzatu gabe, unibertsitateetako liburutegiei buruzko aipamen labur bat egingo dugu, horietan betetzekoak baitira, baita ere, ikastetxeetako liburutegietarako eta liburutegi publikoetarako egin ditugun proposamenetako asko.

Datu bakar bat emango dugu: gure unibertsitateetako liburu-funtsek hogeita hiru liburu dituzte ikasle bakoitzeko, eta European, batez beste, hirurehun eta hogeitaz liburu dituzte ikasle bakoitzeko. Horrek esan nahi du ikasle europarrek batez beste eskura dituzten liburuen % 7,2 soilik dutela eskura gure unibertsitate-ikasleek. Aldea askoz ere handiagoa da herrialde garatuenean eta hezkuntza-maila handieneko herrialdeekiko.

Ez da arrazoi gehiagorik behar ikusteko presazkoa eta premiazkoa dela unibertsitateetako liburutegien hornidurak hobetzeko programa sendo bat egitea.

- Komunikabideak

Herritarrak informatzea eta prestakuntza ematea da komunikabideen eginkizun nabarmenetako bat, eta irakurketari kaltegarri zaion eragile moduan ikusi beharrean, irakurketaren aldeko aliatu direla ulertu behar da.

Irakurketa sustatzea funtsezko eginkizuna da gizartearen garapenean, eta ezinbestekoa da, beraz, komunikabideek sustapen-lana egitea,

herritarrek irakurtzeko ohiturak har ditzaten. Alde horretatik, komeni da komunikabide guztiek, edo komunikabide publikoek gutxienez, irakurketa sustatzeko kanpaina iraunkorrek egiteko estrategiak landu ditzatela lortzea, eta kanpaina horietan zabaltzea zer-nolako garrantzi handia duen irakurketak norberaren garapenerako, eta adieraztea gozatzeko eta aisialdirako jarduera paregabea dela.

Honako proposamen hauek egiten ditugu:

- a) EAEko komunikabide guztien partaidetza gogotsua bultzatzea irakurketa sustatzeko ekintzetan eta euskal argitaletxeen eta idazleen zabalkunderako jardueretan.
- b) Liburuei buruzko informazio gehiago ematea komunikabide publikoetako informazio-zerbitzuetan.
- c) Liburua eta irakurketa sustatzeko programa berariazkoak egitea.
- d) Liburuen eta irakurketaren inguruko ekimen eta ekitaldi guztien jarraipen mediatikoa handitzea.
- e) Liburuaren presentzia normalizatzea irratsaioetan.

- EAEko liburu-azokak

Liburu-azokak, Euskadiko Liburu Ganbarak antolatutakoak, liburua eta irakurketa sustatzeko zehar-tresna bat dira, eta lan handia egiten dute lurralde-kohesioan, urteko 11 hiletan egiten baitira, Euskal Autonomia Erkidego osoko hainbat lekutan. Liburuen, horien egileen eta irakurketaren aldeko ekimen ibiltariak dira. Liburu-azokak hobetzeko, handitu egin behar da liburuak eta euskara erakusteko jardueren kopurua, liburuen egileak azokak egiten diren herriak bisitatzeko programa bat diseinatu behar da, irakurketa

sustatzeko kanpainak egin behar dira eskualdeetan, eremu horietako ikastetxeen eta liburutegien inplikazioa lortuta, eta eskualde mailako kateetan sustatu behar dira azokak. Tresna indartsuak dira azokak, baldin eta ondo prestatzen baldin badira, administrazio publikoekin koordinatuta.

- **Herritarren eta irakurketa-ohituren gaineko azterlanak eta irakurketa-joerei buruzko azterlanak.**

Jarraipen bat izan behar dute irakurketa eta liburuak sustatzeko ekimenek. Kulturaren Euskal Behatokiak bere estatistika-lanak egiten jarraitu behar du, eta, behar denean, EUSTAT erakundearekin lankidetzan aritu behar du, aldiro aztertzeko herritarren ohitura kulturalak eta liburuaren industria kulturalaren bilakaera. *Liburuak irakurri eta erosteko ohiturak EAEn* izeneko azterlana berriro egiteko eskatzen dugu. Euskadiko Editoreen Elkarteak izan zen azterlan horren gidari 2009. urtera arte, eta urtean behingo aldizkakotasunez kaleratzen zen gutxienez. Horrez gainera, eskola-garaiko haurren irakurketa-ohiturei eta -joerei buruzko azterlan espezifikoak egin behar dira.

## 5.2-LIBURUAREN SEKTOREARI LAGUNTZEKO ZEHAR-NEURRIAK

### 5.2.1 –NEURRI FISKALAK

- Balio Erantsiaren gaineko Zerga

Liburu inprimatuak eta euskarri fisiko digitaleko liburuek % 4ko zerga-tasa-dute. Hori arautzen du BEZa arautzen duen legeak eta horrela berretsi da FGEE federazioak 2009/12/4an eta 2010/3/24an egindako kontsulten ondoren. Ekainaren 22ko 10/2007 Legeak, Irakurketari, Liburuari eta Liburutegiei buruzkoak, liburuentzat tasa hori arautzen duen arren, deskarga digitalak ez dira liburuen deskargatzat hartzen, zerbitzu-emateen izaera ematen baitzaie; hori horrela, eta Kontseiluak 2009/5/5ean emandako 2009/47/EE Direktibak arautzen duenari begiratuta, % 21eko zerga-tasa dute.

Espainiako Diputatuen Kongresuak eta Europako Parlamentuak behin baino gehiagotan eskatu dute liburuei dagokien zerga-tasa ordaintzea, haiek zer formatutan editatzen den begiratu gabe. Zerga-tasa % 4koa da Espainian. Beraz, beste estatu batzuek, hala nola Luxenburgok, Frantziak, Italiak eta Maltak egin duten moduan, premiazkoa eta presazkoa da, merkatu digitala finkatuko baldin bada, % 4ko zerga-tasa arautzea deskarga digitalentzat Europar Batasun osoan. Hala ere, bai estatuan eta bai Europar Batasuneko harmonizazio fiskaleko prozesuan, zeroko zerga-tasa izan behar lukete liburuek.

Europako Batzordeak 2016ko abenduaren 1ean BEZa erreformatzeko proposamen batzuk aurkeztu zituen, eta horietako proposamen bat izan zen Direktiba aldatzea, tratu fiskal bera emateko liburuaren euskarri guztiei, fisikoei eta elektronikoei. Babes ahalik eta handiena emateko eskatzen zaie estatuko eta Europako estamentu politikoetan ordezkaritza duten alderdi guztiei, albait lasterren pareka daitezten formatu guztiak legegintza-prozesuan egiteko dauden tramite guztietan eta Europako Parlamentuak eta Kontseilu Europarrak xedapen hori emateko egin behar dituzten kontsultetan, eta eskatzen zaie, era berean, xedapen hori azkar ekartzeko estatuko eta foru-esparruko zuzenbidera.

- PFEZ

Estatuko autonomia-erkidegoek hainbat neurri onartu dituzte bigarren hezkuntzan testuliburuak eta material hezigarriak eskuratzen laguntzeko, autonomia-erkidegoek PFEZan dituzten tarteetan. Horren ondorioz, egiazko desberdintasun-egoerak sortu dira lurraldetik lurraldera.

Zerrenda zehatzik osatu gabe, adibide hauek jar ditzakegu:

- **Aragoin**, irailaren 26ko 1/2005 Legegintza Dekretuaren 110-1 artikulua arautzen du kuota oso autonomo baten kenkaria izango dela testuliburuak eta eskola-materiala eskuratzeagatik, eta gure proposamenera ekarri dugu arau horren edukia.

- **Balear Uharteetako Autonomia Erkidegoan** kenkari bat arautu zen testuliburuak erosten egindako gastuarengatik – 6/2007 Legeko bigarren artikulua arautzen du, 2009an arau horrentzat onartutako testuan–, eta kenkari horren onuradun izan daitezke banakako zerga-aitorpenean 12.500 euroko muga gainditzen ez dutenak eta, errentaren gaineko zergaren baterako aitorpenean, 25.000 euroko langa gainditzen ez dutenak.
- **Kanariar Uharteetan**, 1.500 euroko zenbateko kengarria iritsi daiteke ondorengo bakoitzarengatik eta, likidazio-oinarria 33.007,2 eurotik beherakoa baldin bada, 1.600 eurokoa, ikasketetarako egiten diren gastuetan. Kontzeptu horretan sar daitezke goi-mailako ikasketetarako egiten diren gastuak, baldin eta ondorengo ahaideak ez baldin badu 6.000 eurotik gorako diru-sarrerarik, ez baldin baditu 25 urte bete eta gurasoen mendeko ekonomikoa baldin bada. Horrez gainera, zergadunaren zerga-oinarriak ezin du 39.000 eurotik gorakoa izan banako aitorpenean, ezta 52.000 eurotik gorakoa ere, baterako aitorpenean.
- **Gaztela-Mantxan**, erkidego horretako zergadunek kenkari bat dute testuliburuak erosteagatik eta hizkuntzak ikasteagatik. Oinarrizko hezkuntzan, desgrabazioa % 100ekoa izango da testuliburuak eskuratzeko zenbatekoetan, eta hizkuntzak ikasteko gastuen % 15ekoa.

Muga hauek izango dira baterako aitorpenetan, familia ugarien lege-izaerarik ez duten familientzat:

(Zerga-oinarri orokorra + Aurrezkiaren zerga-oinarria) (Gutxienekoa ondorengoengatik)	Muga seme-alaba bakoitzeko
12.000 euro arte.....	100,00 euro seme-alaba bakoitzeko
12.000,01 eta 20.000,00 euro bitarte.....	50,00 euro seme-alaba bakoitzeko
20.000,01 eta 25.000,00 euro bitarte.....	37,50 euro seme-alaba bakoitzeko

Baterako aitortpena egiten duten familia ugarien kasuan, zerga-oinarriaren arabera ezartzen den muga 40.000 eurokoa da, eta 150 eurokoa seme-alaba bakoitzeko.

Legezko familiak osatzen ez dituztenentzat mugak bestelakoak dira banako aitortpenetan. Honako taula honek adierazten ditu desgraba daitezkeen zenbatekoak eta ehunekoak:

(Zerga-oinarri orokorra + Aurrezkiaren zerga-oinarria) (gutxienekoa ondorengoengatik)	Muga seme-alaba bakoitzeko
6.500 euro arte.....	50,00 euro seme-alaba bakoitzeko
6.500,01 eta 10.000,00 euro bitarte.....	37,50 euro seme-alaba bakoitzeko
10.000,01 eta 12.500,00 euro bitarte.....	25 euro seme-alaba bakoitzeko

Familia-ugarien lege-izaera izan eta banakako zerga-ordainketaren alde egiten dutenen muga 30.000 euro artekoa da, eta 75 euro arte desgraba ditzakete seme-alaba bakoitzeko.

- **Extremadura**

Extremadurako zergadunek kenkari bat izan dezakete eskola-materiala erosteagatik. Zehazki, 15 euro arteko desgrabazioa izan dezakete beren 15 urtera bitarteko seme-alaba edo ondorengoentzat material hori erosteagatik.

Horrez gainera, zergadunaren zerga-oinarriak ezin du 19.000 eurotik gorakoa izan banako aitorpenean, ezta 24.000 eurotik gorakoa ere, baterako aitorpenean.

- **Valentzia**

Valentziako zergadunek 100 euroko kenkaria eskura dezakete eskola-materiala erosteko egiten dituen gastuengatik. Hala ere, langabeek soilik eskura dezakete kenkari hori, baldin eta beren zerga-oinarri orokorra eta aurrezkiaren likidazio-oinarria ez baldin bada 24.000 eurotik gorakoa banako zerga-aitorpenean eta ez baldin bada 38.000 eurotik gorakoa baterako aitorpenean.

Proposamena:

Curriculum berriak ezarri ondoren, eskola-materialak aldatu behar izaten dira eduki berrietara egokitzeko eta horrek gastu ekonomiko handiak dakarzkie familiei; horrenbestez, derrigorrezko hezkuntza-mailetan material horiek eskuratzeko laguntzak ezartzeko une egokia dirudi. Laguntzak ezartzean, berdintasuneko eta progresibitateko printzipioei begiratu behar zaie, eta bereziki zaindu behar dira minusbalotasuneko egoerak eta familia ugariak.

## 5.3 – EDIZIOA LAGUNTZEKO NEURRIAK

### 5.3.1 NEURRI EKONOMIKOAK

- *Kultura-inbertsioengatikoen kenkaria*



Sozietateen gaineko zergaren legea aldatu aurretik (orain gutxi aldatu du azaroaren 27koa 27/2014 Legeak), argitaletxeen industriak kenkari bat zuen liburuak editatzean egindako inbertsioengatik, eta kenkari horrek, aurreko legearen 38. artikulua araututakoa, laguntza ematen zion argitaletxeen serie-ekoizpenari. Lege berriak kendu duen kenkari hori % 5ekoa zen. Hala ere, egungo legearen 36. artikulua bere horretan utzi du zinemagintzako ekoizpenetan, ikus-entzunezko zerbitzuetan eta arte eszenikoen eta musikaren zuzeneko emanaldietan egindako inbertsioengatik kenkaria, % 20koa.

Beste askotan esan dugun moduan, liburuarena da estatuko eta EAEko industria kultural nagusia. Sozietateen gaineko zerga berriak jaitsi egin ditu, oro har, zerga-tasak, baina zentzugabea da ediziorako kenkaria kentzea, garai honetan lehia globalaren eragina handitzen ari delako eta gure liburuak mundu globalean eta informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien esparruan duten presentzia handitzeko ahaleginean ari garelako.

Edizioan egindako inbertsio kulturalarengatik kenkariari eusteko aldarrikapena egiteaz gain, beti eskatu izan dugu hura zinemagintzak eta ikus-entzunezkoek duten kenkariarekin parekatzeko.

- Ekonomia-intereseko elkarteak

Ekonomia-intereseko elkarteek zinemagintzako ekoizpenen antzeko finantzazio-formula bat dute; izan ere, gastuen % 20ko kenkaria

dute filmen produkzio-kostuek, eta pizgarri fiskal horrek inbertsiogilea mesedetzen du, filmean egin duen ekarpenaren ordainetan. Zinemagintzarekin gertatzen den moduan, horrelako neurri bat pizgarri litzateke inbertsiogile pribatuek, beste sektore batzuen aurretik, liburuaren sektorean inbertitzeko gogoia izan dezaten, sektorean egindako inbertsioak etekin bat emango baitie epe motzean, produkzioaren partaidetza bat eskuratzearekin batera.

Premia handia dago une honetan arautzeko neurrien parekatze hori; izan ere, eraldatze-prozesu bat bizi du industria editorialak, inprimitutako lanak digitalizatzen ari da, liburu digitalak argitaratzen ari da eta gero eta ekoizpen multimedia gehiago kaleratzen ari da, eta horrek inbertsio handiak egitea eskatzen du, lehiakorrak izaten jarraitzeko. Kontuan izan behar da, gainera, liburu digitalek, multimedia-ekoizpenek eta ekoizpen analogikoek antz handia dutela ikus-entzunezko ekoizpenekin. Gure eskaera eta proposamena oinarritzen eta justifikatzen du egoera horrek.

### 5.3.2- JABETZA INTELEKTUALAREN ALORREKO NEURRIAK

Jabetza intelektualaren alorrean, aldaketa handia egin behar zaio Estatuko legediari nazioarteko eta Europar Batasuneko legedira egokitu, eta, ondorioz, argi eta garbi zehazteko zein diren jabetza intelektualeko eskubideen titularrak komunikazioaren eta informazioaren teknologia berriak zabaltzen eta ezartzen diren nazioarteko testuinguru honetan. Horrez gainera, legeak argi eta garbi zehaztu behar du nor ez den eskubide horien titular.

Gaur egun, kontraesanean dauden bi egoera hauek gertatzen dira estatuan eta EAEn: alde batetik, gero eta handiagoa da jabetza intelektualaren esparruko merkatua, eta, bestetik, era larrigarrian eta Europar Batasuneko batez bestekoetatik gora urratzen da, batik bat eremu publikoan, jabetza intelektualaren gaineko araubidea.

Hiru motatako neurriak proposatzen ditugu hemen:

1. Argitaletxeen jardueraren eta edizio-kontratuen gaineko neurriak. Premiazkoa da edizio-kontratuari buruzko arauak goitik behera aldatzea, egun indarrean dauden arauak ez baitute egoera teknologikoa kontuan hartzen; horrez gainera, berriaz aitortu behar zaie editoreei sortzaile-izaera.

2. Eskubideen kudeaketa kolektiboaren gaineko neurriak.

Konpentsazio-ordainaren kontzeptua (lehen kanona zena) berregitea da neurri nagusia, hertsiki bete dezan Europar Batasuneko direktibaren testuak agintzen duena. Merkatuak behar bezala ordaindu behar du kontzeptu hori, Frantzia, Alemanian eta Europako gainerako herrialdeetan ezarri den ildoan.

3. Pirateriaren aurkako neurriak

Aldatu berri dira jabetza intelektualaren legea eta prozedura zibileko legea, eta biek dakartzate pirateriaren aurkako neurriak; beraz, alor horretan eskatzen dena da azkar eta zorrotz betetzea lege berriek arautzen dutena, eta, batik bat, arau-urratzaileen aurkako zehapen-

neurriak erabakitzea, eta, hala behar duenean, publizitatea blokeatzeko eta zigortzeko neurriak hartzea.

### 5.3.3- NEURRIAK EKOIZPENEAN ETA MERKATURATZEAN

Argitaletxe gehienak txikiak dira EAEn, eta erkidegoko bi hizkuntzetan ekoizten dute. Askotarikoak dira gaztelaniazko edizio-ekoizpenak, baina ez dago proiektu garestiak egiteko eta literaturaren maila goreneko ildo editorialak abiatzeko baliabiderik. Hartzaile izan daitezkeen irakurleen unibertsoa da euskarazko ekoizpenen muga nagusia, eta, Euskadiko Editoreen Elkarteak egiten dituen azterlanek adierazten duten moduan, ekoizpena ez dago normalizatuta.

Alde handiak daude euskarazko gaikako edizioen banaketaren eta gaztelaniazko edo frantsesezko edizioen banaketaren artean.

Ezinbesteko deritzogu:

- a) Itzulpenetarako laguntzak indartzea.
- b) Ekoizteko laguntzen zenbatekoak handitzea eta laguntzak beste ildo editorial batzuetara zabaltzea, literaturara mugatu gabe.
- c) Sektorean inbertitzea sustatzeko neurriak hartzea.
- d) Sistematikoki erostea EAEn ekoizten diren liburu digital guztietarako lizentziak, eLiburutegirako.
- e) Formatu digital interaktibo berriak sustatzea.
- f) Argitaletxeak nazioartekotzeko laguntzak ematea.

- g) Diruz lagundutako kreditu-ildoak ezartzea edizio-proiektu berriak abiatzeko.
- h) Berariazko neurriak hartzea euskarazko liburuetarako.
- i) Euskal Autonomia Erkidegoko argitalpenei buruzko txostenak eta euskarazko argitalpenei buruzko txostenak egiten jarraitzea, urtero argitalpenek bi esparru horietan duten egoeraren eta bilakaeraren berri ematen duten aldetik. Euskadiko Editoreen Elkarteak 1995ean ekin zion txosten horiek egiteari, eta gaur egun Editoreen Elkartearen laguntzarekin eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikako Sailaren finantzazioarekin osatzen dira.

Irakurleak liburuetara iristea zailtzen edo garestitzen duten aldetik, hainbat oztopo kentzea eta transakzio-kostuak murriztea izan behar du Liburua Sustatzeko Euskal Planaren ahalegin handietako bat, eta, horretarako, liburuak merkaturatzeko enpresa eta molde lehiakorragoak sortu behar dira.

Ekoizpen askotarikoa eta aberatsa izatea da liburuaren merkataritzaren eta industriaren ezaugarrietako bat, ezaugarri distiratsuen, ziur asko. Zenbaki zehatzak emateko asmorik gabe, gogoratu behar dugu urtero 70.000 titulu baino gehiago argitaratzen direla estatuan eta katalogoan 550.000 titulu daudela eskuragarri, gai sorta oso zabalekoak. Ugaritasun horretan, zenbaitetan zaila izaten zaie irakurleei titulu zehatzak eskuratzea, eta editore eta liburu-saltzaileei funtsetako liburuak biziberritzea eta horien txandaketa eta eskuragarritasuna hobetzea. Hori horrela izanda, onuragarriak eta baliagarriak izaten dira alderdi horiek hobetzeko egiten diren ahalegin guztiak. Sektoreko elkarte profesionalek eta

eragile askok ahalegin handiak egin dituzte azken urteetan alderdi horiek lantzeko, eta baliabide propioak erabili izan dituzte gehien-gehienetan. Lan horren guztiaren ondorioz, normalizazio-maila handia lortu da gaien identifikazioan eta katalogazioan, nahiz eta, orain gutxi arte, erabat ezinezkoa zirudien halakorik egitea. Informazio bibliografikoaren esparruan, erabilera orokorra iritsi du ONIX lengoaiak, eta nazioartean erreferentziazko diren erakunde guztietan sartu gara (Editeur).<sup>2</sup>

Editoreek, DILVE banatzailearekin (*Distribuidor de información de libros de venta en español*), informazio bibliografikoaren iturburu moderno bat sortu dute, estatuan egiten den ekoizpen editorialaren metadatu ugari biltzeko, eta liburuaren kateko profesional guztiek informazio-iturri gisa darabilte tresna hori. ONIX lengoia darabilen datu-base bat du tresna horrek, etengabe hornitzen zaizkio datuak base horri, eta editoreek merkataritza-balio handiko informazioa eskuratzen dute haren bidez, banako merkataritza-estrategiak erabakitzeke.

Horrez gainera, abian jarri da LIBRIRED sarea, CEGAL en Red eta LibriData tresnen fusioa. DILVE tresnak ematen duen metadatudun informazioaren osagarri da, eta, haren bidez, egunero zenbat eta zer salmenta-puntutan saltzen duten jakiteko aukera ematen die operadoreei. Era berean, liburuak eskuratzeko bidea errazten die herritarrei, eta merkatu-ikerketak hobetzen eta demokratizatzen ditu.

Bestalde, SINLI (*Sistema de Información Normalizada para el Libro*) sistemak nabarmen murriztu eta normalizatu du transakzioetarako

---

<sup>2</sup> Liburuaren nazioarteko normalizazioa ikuskatzen duen nazioarteko batzordea.

dokumentazio komertziala. Protokolo-moduko batzuk dira CLS arauak (liburuen hornidura-katea hobetzeko arauak), eta beren egitekoa da liburuaren kate komertzialeko prozesuak eta funtzioak normalizatzea, editoreen, banatzaileen eta liburu-denden kostuak murrizteko. FGEE, CEGAL eta FANDE eragileek elkarlanean osatu dituzte CSL arau horiek, liburuen hornidura-katea hobetzeko.

Egitura eta sistema informatiko konplexua eta modu hobezinean koordinatua da, baina azken ahalegin bat behar du behin betiko ezartzeko eta, beharbada, gaztelaniaren beste merkatu batzuetara esportatzeko. Helburu hori lortzeko, iturburu-kodeak eta softwareak eskuratzeko inbertsioa egin da (berariaz gogoratu behar da erakunde korporatiboen jabetzakoak direla biak), eta azken inbertsio-ahalegin bat egin behar da, erabiltzaileek ordaintzen dituzten kuotekin batera, tresna horiek liburuaren sektorea modernizatzeko oinarria bilaka daitezten. Xede hori lortzeko, proposamen hauek egiten dira:

#### 1. Kredituen edo abalen ildoak sortzea

Finantzaketa publikoa izango duen kredituen edo abalen ildo bat sortzea proposatzen dugu, tresna horiek Euskal Autonomia Erkidegoko salmenta-puntu guztietan ezartzeko aukera izan dadin, baina salmenta-puntu txikienean ere. Hiru urterako kreditu-ildoak litzateke, aldi bakarrean.

## 2. Liburuak digitalizatzea

Funts bibliografikoak digitalizatzeko prozesuak eta eduki digitalak banatzeko plataformak, lehiakorrak eta tamaina egokikoak, sor daitezzen sustatzea proposatzen dugu. Prozesu garestia da funts bibliografikoak digitalizatzea eta, gainera, azpiegitura teknologiko handi baten beharrea da. Horrek, gaur egun, kostu handiegia du liburuaren sektoreak dituen baliabide finantzarioak eta egiturazkoak aintzat hartuta. Hala ere, prozesu horretan sartzeko ahaleginak egiten ari dira argitaletxeak.

Industriako eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailek, elkarrekin eta datorren hirurtekorako, neurrizko diru-hornidura izango duen aurrekontu-kontsignazio bat egitea da gure proposamena, jauzi kualitatibo bat emateko, eta ez soilik kuantitatiboa, digitalizatzeko prozesuekin.

### 5.4- LIBURU-DENDEI LAGUNTZEKO NEURRIAK

Liburu-denda onek, itxurazko tamaina eta bokazio kulturala dutenek, presazko laguntza-neurriak behar dituzte beren etorkizuneko iraupena ziurtatzeko.

Funtseko liburu-denden sare on bat izan behar du jantzia eta garatua izan nahi duen herriak. Liburu-dendek tamaina egokiko lokalak eta baliabide teknologiko nahikoak izan behar dituzte, informazioaren sozietateren eskakizunak asetzeko eta eduki digital berriak zabaltzeko.



Liburu-dendei laguntzeko plan bat egin behar da, liburuari eta liburu-dendei prestigioa emateko, eta plan horrek liburu-dendei laguntzeko neurri instituzionalak eta haien iraupena bermatzeko bestelako babes-ekimenak izan behar ditu.

Arazo horiek berak diagnostikatu dituzte gure inguruko beste herrialde batzuetan, eta, herrialde horietan, laguntza-neurriak hartzea erabaki dute administrazio publikoek.

Betiko liburu-dendak gero eta egoera ahulagoan daudela ikusita, haiei laguntzeko tresnak sortzeko premia igarri dute, ematen dituzten zerbitzuak bermatze aldera.

Kreditua eskuratzeko bidea eman behar zaie betiko liburu-dendei eta liburu-denda berriei, eguneratu eta berritu daitezzen, prestakuntza profesionala jaso dezaten eta aholkularitza teknikoa, profesionala eta ekonomikoa izan dezaten.

Frantzian, esaterako, Liburu-dendak Garatzeko Elkarteak, ADELCO, sortu da Liburuaren Zuzendaritza Nagusiaren laguntzarekin. Elkartea horren administrazio-kontseiluko kide da, hasieratik, Liburuaren eta Irakurketaren zuzendari nagusia, eta partaide ditu, era berean, argitaletxeetako eta liburu-dendetako hainbat ordezkari nabarmen. Batzorde tekniko batzuk ditu elkarteak, eta horien egitekoa da proiektuak ebaluatzea, proiektuen bideragarritasuna eta iraunkortasuna aztertzea eta, aldi batez, laguntza eta aholkularitza ematea proiektu berriei. Finantzazioa lortzen laguntzen du elkarteak eta, zenbaitetan, finantzazio horretan laguntzen du. Laguntza ematen duen garaian, liburu-dendaren kudeaketan parte hartze handia izatera iritsi daiteke.

Horrenbestez, laguntza instituzionalaren premian gaudela deritzogu, eta, laguntza hori bideratzeko, presazko neurri hauek har daitezke:

-Lehentasunezko kredituen plangintza bat, liburu-dendak finantzatzeko.

-Liburutegietako funtsak handitzea, eta liburu-dendak izatea erosketak egiteko bide nagusia.

-Laguntza-neurriak abiatzea alokairuen politikan, hirietan liburu-dendak irekitzeko bideak zabaldu eta belaunaldien txandatzak errazteko.

-Diru-laguntzak eskuratzeko aukera izatea, transakzio komertzialak hobetuko dituzten automatizazio-sistemak ezartzeko: CEGAL en red, sinli, dilve...

-Instalazioak berritzeko eta modernizatzeko inbertsioak finantzatzen laguntzea salmenta-puntuei.

-Instituzioekin lankidetzan aritzeko formulak ezartzea, gaikako kanpainak egin eta, horren bidez, liburu-dendetara joaten den jende kopurua handitzeko.

### Euskal kalitate-zigilua liburu-dendentzat

Gero eta kezka handiagoa eragiten die gai honek liburu-dendei eta editoreei. Bada kalitatezko liburu-dendarik, baina, leku askotan, beste produktu askorekin batera saltzen dira liburuak, ganora handirik gabe. Kalitatezko liburu-denden sare bat izan nahi baldin badugu, kalitatezko liburu-dendak identifikatu eta gainerakoengandik bereiziko dituen sistema bat aurkitzea komeni da, bezeroak jakin dezan establezimendu horretan emango zaiola

nahi duen liburu hori azkar eta erraz aurkitzeko zerbitzua eta aholkularitzako eta informazioko zerbitzu egokiak emango zaizkiola.

Estatuan sortu dute liburu-dendetarako kalitate-zigilua. Liburu-denden kalitate-zigiluak kalitate-marka bat ematen dio liburu-denden sektoreari eta, horrez gainera, gune kultural bihurtzen ditu liburu-dendak, bizipen gozagarriak eskaintzeko haien erabiltzaileei. Espainiako Liburu Ganbaren Elkarteak bultzatu du kalitate-zigilu hori (elkarte horren partaide da Euskadiko Liburu Ganbara) eta honako xede hauek ditu:

- Liburu-dendak beren komunitateetan elkartzeko, hausnartzeko eta eztabaidatzeko guneak izango direla ziurtatzea, eta, horretarako, jarduera sozialak eta kulturalak antolatzea.
- Ondare bibliografikoaren dibertsitatea sustatzea, eta sustapen lan hori egiteko, liburu-denden sare bat babestea, errotazio azkarreko liburuak eta funtseko liburuak eskainiko dituen.
- Liburu-dendek beren komunitateetan betetzen duten eginkizun ezinbestekoaz kontzientziatzea iritzi publikoa.
- Erreferentziazko liburu-denden egoera ekonomikoa hobetzea.
- Bultzada bat ematea liburu-dendei, beren gain har dezaten irakurleei gero eta zerbitzu hobea emateko konpromisoa.
- Hirugarrenen aurrean identifikatzea, eta ziurtatzea kalitate-zigilua duten liburu-dendak kalitate-estandar zorrotzak betetzen dituztela.

Liburu-dendentzat euskal kalitate-zigilua sortzea da gure proposamena. Euskal zigiluaren irizpideak homologagarriak izan behar dute Liburu Ganbaren Elkarteak darabiltzanekin, baina gure lurraldearen egoerara egokitu behar dira, liburu-denda bakoitzak,

bere hizkuntza-paisaian, dagokion garrantzia eta egoki irizten dion lekua eman diezaion euskarari.

Liburuak saltzen dituzten beste leku batzuen aldean, euskal kalitate-zigilua daramaten liburu-dendek lehiarako abantailak lortu behar dituzte administrazio publikoengandik, bai laguntza publikoak eskuratzean, bai liburuak hornitzeko lehiaketetan parte hartzean, hori baita zigiluaren osagai kulturalak dakarren ahalegin ekonomikoa konpentsatzeko modua.

### Kulturaren kontsumoa sustatzea

Eutsi egin behar zaio Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundiek, kaleratzen dituzten bonoen bidez, kulturaren kontsumoa sustatzeko egiten duten ahalegin ekonomikoari. Araban ere horixe bera egitea eta bonoak eskuratzeko eta erabiltzeko irizpideak bateratzeko mekanismo bat aurkitzea komeni da. Era berean, aurrekontu-sail handiagoak bideratu behar dira, bonoak egun gutxi batzuetan agortzen direlako, eta beste produktu kultural batzuekin parekatu behar da liburua, irizpideak bateratuta.

### Liburu-saltzaileek prestakuntza espezializatua izatea

Liburu-saltzaileek prestakuntza espezializatua izan behar dute, eta bide hori urratu behar da. Euskal Autonomia Erkidegoan sektoreak ez du prestakuntza espezifikorik izan, eta ganoraz hausnartu behar da zein izan daitekeen prestakuntza-eredu egokia. Frantziak dakarzkigu, beste behin, adibide interesgarriak. Ondoko herrialdean prestakuntza-ikastaroak ematen zaizkie liburu-denda berriak sustatu

edo ireki nahi dituztenei, baita lehendik lanean ari diren liburu-dendak eraldatu eta modernizatzeko ikastaroak ere. Era berean, prestakuntza arautua ematen zaie dendetako langileei eta administrazio-lanetan aritzen direnei.

Egokia izan daiteke berriazko prestakuntza-moduluren bat ezartzeko aukera aintzat hartzea Lanbide Heziketa arautua eraldatzeko eta modernizatzeko prozesuan edo, gutxienez, liburugintzako espezialitateren bat barneratzea ezarrita dauden edo ezar daitezkeen moduluetan.

### Liburu-denden eta ikastetxeen arteko harremana sendotzea

Liburu-saltzaileak dira liburuak merkaturatzeko eragile egokienak, ikuspegi kultural bat dakarten aldetik. Haien biziraupenerako neurri bat da “Liburuaren Legea” beteko dela ziurtatzea, lehia desleialik izan ez dezaten. Hezkuntza-alorreko liburuak beti izan dira liburu-denden biziraupenerako alderdi garrantzitsua, urte-sasoi jakineko salmentak dakartzaten arren, herritarrekiko harremanari eusten laguntzen dutelako eta herritarrei gogorarazten dielako urte osoan daudela liburu-dendak haien eskura, kulturara gerturatzeko. Harreman edo lotura horren etenak denetariko liburuen salmentagalera eragiten ari da, baita tokian tokiko eta auzoetako liburu-denden itxiera ere. Liburu-denden eta beren inguruko ikastetxeen arteko harremana sendotu behar da.

Hemen azaldutakoa eredu ona dela deritzogu eta aztertua eta aintzat hartua izatea merezi duela, gurean liburu-denden sare on eta eraginkor bat osatzen lagunduko duten tresnak sustatzeko.

Horrenbestez, proposatzen dugu kultura-agintariek, sektore-eragileekin batera, lehenbailehen osatzea liburu-denden bideragarritasuna eta geroa bermatzeko proiektu bat, eta helburu hori lortzeko laguntza-tresnak sortzea proiektu horren bidez.

EUSKADIKO LIBURU GANBARA  
CÁMARA DEL LIBRO DE EUSKADI